

Bidebieta

# Auzotarrak bat eginik

Joan den astean auzoko hainbat elkartek eta hezkuntza zentroek elkarlanean aritzeko nahia agertu zuten Moneda base-rrian eginiko bileran. Denek batera auzoko arazoei aurre egin nahi diete.

Raul Perez 943-396209


**D**orreak auzo elkarteko kideek adierazi digutenez, "uste baino eragin handiagoa izan dezake auzoko taldeen jarrerak. Azken urteotan, elkarturik ez egoteagatik, arazo franko konpondu gabe geratu dira".

Hiru arazo nagusiri eran-

tzungo diete taldeok datozen hilabeteetan. Alde batetik, aparkatzea debekatuta egon arren, Joan Karla Gerra kalea kotxez beteta egon ohi da. Arazo horri behin betirako irtenbidea bilatu nahian, auzo elkarteak inguruan dauden Haur Txokoko, Gazte Txokoko, zein bizilagunen komunitateetako ordezkariekin biltzea adostu zuen.

Bestalde, zahar etxeko arduradunek beren kezkak mahaigaineratu zituzten. Beraien esanetan, "Udalak lorategian egin behar zituen zainketa lanak ez dira egin". Horra hor, beraz, konpondu beharreko beste kontua.

Azkenik, bada buruhauste ugari ematen ari den bestela-



Dorreak elkarteko kideek adierazitakoaren arabera, azken urteetan auzoko arazo franko konpondu gabe geratu dira taldeen arteko batasun ezagatik.

## Sexuari buruzko zinea

Hilaren 8an, Kontadores gazte zentroan "Sexua pantailartzeko eskubidearen aldeko martxa luzea" izeneko ikastaroa hasiko da. Jose Luis Rebordinos ariko da irakasle lanetan. Hamabostean behin, ostegunero, 16.40etatik 20.30etara, hainbat pelikula esagurantsu aztertzeko aukera izango da bertan. Hilaren 8an, 30, 40 eta 50eko hamarkadetako film mutuak ikusi ahal izango dira, tartean Cecil B. Demilleren "La marca de fuego" (1915) eta Friedrich W. Murnauren "Tabú" (1930). Ikastaroa maiatzaren 30era arte luzatuko da eta beste hainbat pelikula ezagun ikusi ahal izango dira: "Esposas frivolas", "Garganta profunda", "Historia de O", "Bilbao" eta "El último tango en Paris", besteak beste.



ko arazorik ere: gasolindegia- ren auzia, alegia. Ildo horretatik, auzia gertutik jarraitze- ko asmoa plazaratu zuten bileran bildutako ordezkari guztiek.

## Auzoari buruzko erakusketa

Hirigintzak sortzen dituen ikami- kak alde batera utzita, ezin aipatu gabe utzi Bidebietako historiari buruzko argazki era- kusketa antolatu nahi dela. Auzoa gazte samarra da, eta erakusketarekin bizilagunek Bidebietak garai batean zuen itxura ezagutu dezaten nahi da. Dorreak Altzako Historia Mintegiko bazkidea da, eta dagoeneko aipatu mintegiare-

## Etorkizunean Bidebietako historiari buruzko argazki erakusketa antolatu nahi da

kin harremanetan jarri da proiektua gauzatzeko. Juan Carlos Mora Altzako Historia Mintegiko kidearen esanetan, erakusketa antolatzeak nahikoa lan emango die. "Bidebietak ez baitu historia handirik. Hala ere, badakigu Kutzaren fototekan materialea dagoela. Argazkien informazio osatzeko, berriz, garai bateko baserritarren adierazpenak lortu beharko ditugu", adierazi digu Morak.